



# Etxetik eskolarako bidea

**Gai honekin zerikusia duten arloak**

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- MATEMATIKA.

**MATERIALA**

- Herriko mapa bat, eskalaren arabera egindakoa, lau ikasleko talde bakoitzeko.

**HELBURUA**

- Eskalak zer diren ulertzea eta mapak erabiltzen ohitzea.

## Garapena

Hasteko —eskala kontzeptua ulertzeko jolas gisa— 1:2 eskalan egingo dugu tximeletaren mapa (ikus marrazkia); ondoren ikasleek, launaka, eskolara etortzeko erabiltzen dituzten bideak marratuko dituzte herriko mapa batean, eta benetako distantziak kalkulatuko dituzte eskalan (egokiena 1:1.000 edo 1:2.000 eskalen araberako mapak erabiltzea litzateke; udaletxean eskatu ahal dira).

## Eskalak ulertu

Marraztu tximeleta laukian. Lauki hori 1:2 eskalaren araberako mapa bat da.

## Gure herriko maparen azterketa

Kokatu eskola eta zeuen etxea herriko planoan. Gero, marraztu kolore banaz etxetik eskolaraino egiten duzuen bidea; neurtu eta, eskala erabiliz, kalkulatu distantzia.





